

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Ez al zaizu inoiz ere gertatu etxeko giltzak, zure alkandora gustukoena edo etxerako lanak galdu dituzula eta ez duzula berreskuratzeko aukera izan? “**Attraction Force**” produktuari esker arazo hori ekiditzeko aukera izango duzu. Gure produktua erosiz, urrutiko agente bat bezala zure objektuak kontrolatu ahalko dituzu. Objektu horietan mikrotxip bat jarriz, agente horrek galdu duzun horren kokapena jakinarazi ahalko dizu.



Zergatik da gure produktua gaur egungo gizarterako berrikuntza bat? Inoiz ikusi ez den produktu bat izango delako, arazo garrantzitsu eta ohiko bat konpontzeko gai izango delako eta, gure ustez, horrek arrakasta ekarriko du. Gainera, gaur egungo sozietateak buruhaustea izaten ditu denboraren antolaketarekin eta hainbat kexa daude denbora galtzen dituzten arazoekin. Esate baterako, egunero minutu gehiegi galtzen ditugu gure ondasunak bilatzen, orduan, “**Attraction force**” gure gizarterako berrikuntza bat izango litzateke denbora kudeatzen laguntzeko gai izango delako.

Gure ustez, gure produktuak dituen 2 baloreak originaltasuna eta lanaren erreztasuna dira, izan ere, gure produktua originala da inoiz ikusi ez den asmakizuna da. Halaber, lana erreztu egingo du ez duzulako berriro ere denbora galduko galtzen dituzun gauzak bilatzen.